



Euskaltzaleen Topaguneak lagun bat kontratatu behar du epe laburrean [AUZOKO egitasmoa](#) Oñatin gauzatzeko. Hona eskaintzaren nondik norako zehatzak:

### Zer da AUZOKO?

Gure herrietako hizkuntza eta kultura aniztasunaz jabetu eta guztion arteko komunikazioa euskaraz jorrazteko egitasmo parte-hartzailea.

### Egitasmoaren helburuak

- Euskaratik urrun bizi diren herritarrak euskarara hurbiltzea.
- Gure herrietako hizkuntza aniztasuna ikusgarri egin eta balorean jartzea.
- Hizkuntza ezberdinetako herritarrak harremanetan jartzea, eta norberarena eta besteena aintzat hartuta, euskara komunikazio eta kohesio hizkuntza izatea.

### Eskatzen da

- Bi hizkuntza ofizialak ongi menperatzea.
- Hizkuntzekiko eta kulturekiko sentsibilitatea izatea; aniztasunarekiko interesa.
- Taldeak dinamizatzeko eta harreman pertsonaletarako gaitasuna izatea.
- Gestioan eta planifikazioan eskarmentua izatea.
- Oñati ondo ezagutzea.
- Ordu-tegi malgua izatea.

### Eskaintzen da

- Euskaltzaleen Topaguneak egindako kontratua, **astean 17 orduko** dedikazioarekin. Urtarrilean hasi eta, printzipioz, ikasturtea amaitu arte.
- Topagunearekin lankidetzan Oñatiko Auzoko proiektua dinamizatzea.
- Topaguneko aholkularitza eta koordinazio lan-taldean parte hartzea.

### Curriculumak aurkeztea

- Curriculumak [jurdana@topagunea.eus](mailto:jurdana@topagunea.eus) helbidera bidali behar dira. Motibazio gutunak eskertuko dira.
- Aurkezteko azken eguna: **2018ko urtarrilaren 18a**.
- Hautaketa hilabete amaierarako egingo da.

Andoainen, 2018ko urtarrilaren 11ean.